

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2007KO OTSAILA


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduerak urte arteko %5,5eko hazkunde-tasa izan du 2007ko otsailean

Ekipamenduko ondasunen ekoizpenak %14,6ko hazkundera izan du

EUSTATEN datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2006ko otsailaren aldean %5,5 hazi da 2007ko otsailean. Urteko lehenengo bi hilabeteetako hazkundera %4,4koa izan da, 2006ko aldi beraren aldean.

2007ko otsailean, eta urtarrilaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %1,4 gehitu da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabetea



(*) 2007ko urtarrila-otsaila bitarteko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2007ko otsaileko indizearen bilakaera hazi egin da ekipamenduen ondasunetan (%14,6) eta tarteko ondasunetan (%6,1), 2006ko otsailaren aldean. Aitzitik, energia %10,1 gutxitu da eta kontsumo-ondasunak %1,1, hauek kontsumo-ondasun ez iraunkorren (%-3,4) gutxitzearen ondorioz; kontsumo-ondasun iraunkorrak, aldiz, %3,7 gehitu dira.

2007ko urtarilaren aldean, 2007ko otsailean hil arteko aldakuntzak positiboak izan dira ekipamenduko ondasunen (%2,4), tarteko ondasunen (%1,3) eta kontsumo-ondasunen (%0,3) sektore nagusietan. Kontsumo-ondasunen osagaien artean, kontsumo-ondasun iraunkorrek %3,8ko hil arteko gehikuntza izan dute baina kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %1,4 egin dute behera, urtarilaren aldean. Energia, bestalde, %1,8 gutxitu da aurreko hilabetearen aldean.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan dira sektore guztietan; izan ere, Gipuzkoan %8,0 hazi da, Araban %5,6 eta Bizkaian %3,3.

2007ko otsailean, eta 2007ko urtarilaren aldean, hil arteko hazkunde-tasak positiboak izan dira hiru lurralde historikoetan: Araban %3,3 gehitu da tasa hori, Bizkaian %1,1 eta Gipuzkoan %0,7.

Taula: 2007KO OTSAILA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Ots07 / Ots06	At / At-1 (1)	Ots07 / Urt07	Urt07 / Abe06
Indize orokorra: Euskal AE	5,5	4,4	1,4	-0,5
Araba	5,6	3,7	3,3	1,4
Bizkaia	3,3	2,5	1,1	-0,4
Gipuzkoa	8,0	7,1	0,7	-1,5
Indizeak helburu ekonomikoka Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-1,1	-0,8	0,3	-3,3
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	3,7	0,1	3,8	-5,8
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-3,4	-1,3	-1,4	-2,0
Ekipo-ondasunak	14,6	11,5	2,4	1,7
Bitarteko ondasunak	6,1	4,8	1,3	-0,8
Energia	-10,1	-7,2	-1,8	4,6

(1) t urteko otsailetik azken hilera arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp